

II. Eranskina

DONOSTIAKO Orkideen Kontserbazio Programan laginketak burutzeko landa gida

Laginketen egunean soinean eramateko eta pausu garrantzitsuenak gogoratzeko asmoarekin idatzi dugu dokumentu hau.

Materiala

Esfortzu fisiko handiko lana ez izan arren, gure partzelaren kokapenaren eta topatzen ditugun orkidea kopuruaren arabera, laginketak osatzeko beharrezko denbora luzatu daiteke. Hori dela eta, laginketak ez gutxiestea eta ondo prestatuta joatea gomendatzen dizuegu.

Laginketaren egunean zurekin eraman beharrezko materialaren zerrenda txiki bat egin dugu, beharrezkoak eta gomendagarriak direnak bereiziz:

Beharrezkoak:

1. Argazki kamera edo kamera duen telefono mugikor bat.
2. Landa-fitxa behaketak idazteko.
3. Arkatza eta borragoma orkideen espeziea eta kopurua idazteko.

Gomendagarriak

1. Orkideen gida bat behaketen identifikazioa egiteko. Aranzadiko Liburutegian edo Donostiako Udal Liburutegietan identifikazioarekin lagunduko dien material bibliografikoa mailegatzeko aukera dute.
2. Laginketa egunerako arropa aproposa: oinetako erosoak, eguzkitarako krema, eguzkitarako betaurrekoak, etab.

Laginketa bakoitzerako prestaketa egokirako, laginketa egunerako *Checklist* bat sortu dugu. Bertan, laginketa bat gauzatzeko item garrantzitsuenak aurki ditzakezu

Orkideen laginketa

Toki zehatz batera (partzela) joateari eta bertan dauden orkidea espezieak identifikatzea eta haien zenbaketari deitzen diogu laginketa bat egitea. Arrazoi honengatik oso garrantzitsua da guk aukeratutako edo guri egokitutako partzela lagintzea.

Beste esparru batean orkidearik aurkituz gero, hauek ez dira gure partzelan topatutako behaketa bat bezala hartu behar. Behaketa hauek programaren barruan sartu nahi izanez gero, koordinatzaileari jakinarazi beharko zaio.

Orkideen laginketetarako xehetasun teknikoak

Behaketen ahalik eta argazki gehien ateratzea gomendatzen dugu. Argazki hauek gure behaketaren froga fisikoak dira, eta, azken finean, gure identifikazioa zuzen egin dugunaren testigantza. Gainera, oso lagungarriak dira zalantzak ditugun kasuetan argazkiek programako koordinatzaileari orkideen identifikazioekin laguntzeko aukera ematen baitio. 2. Irudian ikus daitezkeen orkideen argazki batzuk.



1. Irudia: Irudia: Orkideen argazkiak: goian ezkerrean *Himantoglossum hircinum*, goian eskuinean *Serapias cordigera*, behean ezkerrean *Ophrys scolopax* eta behean eskuinean *Ophrys lutea*.

Laginketan zehar gure partzela barruan espezie bakoitzaren gutxi gorabeherako kopurua estimatzea ere eskatzen dugu. Horrela, espezieen eboluzio tenporala behatu daiteke eta aldagai desberdinekin erlazionatu.

Gure behaketen digitalizazioa

Laginketa bezain garrantzitsua gure behaketen digitalizazioa da. Gaur egun, badira hainbat modu digitalizazio hau burutzeko eta uste dugu digitalizazio honek abantaila ugari dituela artxibo tradizionalarekin konparatuta.

Interneten aurki daitezkeen plataforma kolaboratiboei esker, etxetik irten gabe gure behaketak beste parte-hartzaileen behaketekin batu ahal izango ditugu Orkideen Kontserbazio Programaren barruan!

Honetaz gain, plataformek hurrengo abantailak eskaintzen dituzte:

- beste erabiltzaileei esker gure behaketak berresteko aukera;
- guri interesatzen zaizkigun beste animalia edo landareen behaketak miatzea, Donostia zein munduko beste edozein tokitan;
- programako koordinatzaileari lana erraztea datu-basea sortu eta analisi lanak egiterako orduan.

Honengatik guztiagatik parte hartzaile guztioi animatu iNaturalist moduko plataformak erabiltzera nahi zaituztegu. Hau erabiltzeko prozedura eskura izango duzue.